



Ajangizko Udala

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK
BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA
ARAUTZAILEA.-**

I.- XEDAPEN OROKORRAK.-

1. Artikulua.

Udal honek, Lurraldeko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Aginduari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu, zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa hauek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. Artikulua.

Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

II.- ZERGAGAIA.-

3. Artikulua.

Udalaren aldetik, zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzten du zergagaia, bai eskatua izan delako, edota partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

III.- SUBJEKTU PASIBOA.-

4. Artikulua.

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak; pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen ditzuztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokaken okupatzaileei onura edo eragina dakarkiten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan, higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrein prebentzioagatik, eraikuntza eta eraispin zerbitzuengatik, salmenduengatik eta, orohar, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.



Ajangizko Udala

- c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emategatik ezarritako tasetan, obren eraikitzaileak eta kontratistak.

5. Artikulua.

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
b) Partikularrek eskatu ez baina horien egintza edo jardueren kasutan, egintza edo hutsegite horiek leporaharri dituztenak.

6. Artikulua.

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK.-

7. Artikulua.

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA.-

8. Artikulua.

Oinarri ezargarría, zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

VI. KUOTA.-

9. Artikulua.

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eanskinean ezarritakoaren arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA.-

10. Artikulua.

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA.-

11. Artikulua.



Ajangizko Udala

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da Etranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX. TASEN KUDEAKETA.-

12. Artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X. AMAIERAKO XEDAPENA.-

Ordenantza hau eta bere Etanskinaren aldarapenak 2005eko azaroaren 19an onartu ziren behin betikz, eta 2006ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.



Ajangizko Udala

ERANSKINA

2. EPIGRAFEA **ZABOR BILKETA ETA EZABATZE ZERBITZUAGATIKO TASA.-**

I.- HIRUHILEBETEKO TARIFAK:

- a) Etxebizitzak: 14,85 €
b) Industria eta tailerrak (50 langile edo gehiago) 168,75 €

II.- APLIKATZE ARAUAK:

1. Ordenantza honen bidez ezartzen den tasa udalerriko etxebizitza, eraikuntza, saldegi eta enpresa guztiei izango zaie aplikagarri.
2. Zaborrak Udaletxeak herrian zehar jarritako edukiontzietan botako dira.
3. Zaborrak dagozkion lekura, interesdunak berak eraman beharko ditu, poltsa edota kaxa egokitan jasota.
4. Norberaren lurretan, erreka edo bide publikoetan zaborrak botatzea debekatuta dago.
5. Zabor bilketa zerbitzuak ez ditu industria hondakinak jasotzen.

4. EPIGRAFEA **ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUAGATIKO TASA**

Hilabeteko tarifa:

- ordu bete eguneko: 83,27 €

5. EPIGRAFEA **UDAL HILERRI ETA HILETA ZERBITZUAK**

- Hileta eskubide agiria emateagatik 16,05 €
- Lurperaketa: 118,18 €
- Desehorzketa, berrehorzketa edo lurperatu zirenetik hiru urte pasatu ez diren gorpuk mugitzea: 401,89 €
- Hiru urte baino gehiago baina zortzi urte gutxiagoz lurperatuta egin diren gorpuen desehorzketa, berrehorzketa eta leku aldaketak: 80,37 €
- Legez jarritako epea igarotako gorpuen desehorzketa, berrehorzketa eta lekuz aldaketak: 40,20 €
- Hezurlekuan sartu eta lekuz aldatzeagatik: 9,40 €
- Familiak eskatuta Ajangizkoa ez den beste hilerri batetara eraman eta bertan lurperatzea: 24,12 €

99 urterako emandako administrazio emakidak:

a) Panteoiak

- Ajangizen erroldatuak: 12.546,00 €
- Erroldatugabeak: 13.902,00 €

b) Nitxoak:

- Ajangizen erroldatuak: 2.064,00 €
- Erroldatugabeak: 2.295,00 €

c) Hezurtokiak:



Ajangizko Udala

- Ajangizen erroldatuak: 350,00 €
- Erroldatugabeak: 392,00 €

6. EPIGRAFEA **AGIRI ADMINISTRATIBOAK EMATEAGATIKO TASA**

I.- TARIFAK.-

Original baten fotokopiak:

DIN A4 0,10 €/ folio
DIN A3 0,20 €/ folio

Planoen kopiak: 3,00 €

7. EPIGRAFEA **HIRIGINTZA BAIMENAK TRAMITATZEAGATIK TASA**

1. Obra edo instalazio baimenak tramitatzeagatik:

| | |
|---|----------|
| 300,50 eurotaraino | 8,35 € |
| 300,51 eurotik 1.502,50 eurotaraino | 20,22 € |
| 1.502,51 eurotik 3.005,06 eurotaraino | 40,45 € |
| 3.005,07 eurotik 6.010 eurotaraino | 80,80 € |
| 6.010,01 eurotik 15.025,30 eurotaraino | 202,15 € |
| 15.025,30 eurotik 30.050 eurotaraino | 402,50 € |
| 30.050,01 eurotik 60.101,20 eurotaraino | 606,40 € |
| 60.101,21 eurotik gora | 808,48 € |

2. Lehen okupaziorako lizentzia edo ihardueren irekitze baimena: 39,20 euro.

3. Zehaztapan azterlana bideratzeko zerbitzuak: Biderapenagatiko tasa 0,07 euro/m2ko.
Horretaz aparte, eskatzailearen bizkar izango dira bidezko ordain-sariak.

4.- Hirilur eta landalurreko lurziketa eta berziketak bideratzeko zerbitzuak, kompensazio hirigintza proiektuak ere:

- Azalera 250 m2 arte, m2 bakoitzeko: 0,86 euro.
- Gainerako m2 bakoitzeko: 0,08 euro.
- Gutxienekoa: 41,60 euro.

5. Edonolako antolaketa planeamenduak egin zein aldatzeko zerbitzuak: Plan Zehaztuak baimena ematen duen gehienezko eraikigarritasunaren m2 bakoitzeko: 0,70 euro.

6. Hondamen deklarazioari buruzko txostenak norbaitek eskatuz: 179,14 euro.
Hondamen zehaztapidetza kontrajarriak tramitatzearen: 403,98 euro eta hondamen txostenaren kopurua.

7. Deslindeko prozedura tramitazioa:

Gutxienekoa: 104,15 euro.

Gutxieneko hori, mugatu beharreko lursailaren arabera, ondorengo kopuruengatik handituko da:



Ajangizko Udala

- 1.500 m² rarteko neurketetan: 0,35 euro/m².
- 1.500 m² tik 5000 m² rarteko neurketetan: 0,22 euro/m².
- 5.000 m² tik goragoko neurketetan: 0,10 euro/m².

Kasu guztietan topografi azterketaren kostua eskatzailearen kontura izango da.

8. Eskatzaileak aurkeztutako lizentziari edo izaera berdintsuko prestamenari hura eman edo dagokion ebazpena hartu aurretik uko egiten dionean, kobratu beharreko kuotak aurreko ataletan ezarritakoaren %50ekoak izago dira, beti ere udalak iharduerari benetan ekin badio.

8. EPIGRAFEA

UDAL PILOTALEKUA ERABILTZEAGATIKO TASA

€/ orduko: 1,30 €/ orduko

Frontoia erabili nahi dutenek eguna eta ordua hartu beharko dute, horretarako Udalak adierazten duenaren arabera dagozkien tarifa ordaindu beharko dutelarik.

Erabiltzaileek erabiltzen dituzten udal instalazioen arduradun izango dira, eta sor daiteken edozein kalteren erantzule izango dira.
